

Ezpalak

GORKA BEREZIARTUA

Berri Txarrak taldearen *Zertarako amestu* dokumentala Londresko Portobello Film Festival-en proiektatu zuten abuztuaren 29an. Ibon A. Totorika zinema zuzendari getxoztarrak egindako dokumentala da, talde nafarrak *Jajo.Musika.Hil* diskoa aurkezteko egindako biran oinarrituta. Bira horretan Europa, Amerika eta Asian zehar aritu zen Berri Txarrak, eta dokumentala osatzeko Gernikako Astra gazte-txean kontzertu berezia eskaini zuten.



Ados antzerki konpainiak irailaren 2an ekin dio Santo Domingon (Dominikar Errepublika) Hego Amerikako birari. *Einstein* antzezlanaren aurkezten ari da euskal antzerki taldea eta besteak beste honako herrialdeak bisitatuko ditu: Costa Rica, Guatemala, El Salvador, Honduras, Mexiko eta AEB. Irailaren 27an amaituko da bira.

Elurretan taldeak disko berria argitaratu du. 21 abestiz osatutako diskoa da *Momo eta beste izaki batzu* eta taldearen webgunean (www.elurretan.com) bakarrik dago eskuragai. Pop-a du oinarri diskoak, baina folka eta musika esperimentalak ere landuko dituzte. Disko hau sarean jartzearekin batera, Elurretanek bere aurreko lan guztiak ere doan jaisteko moduan jarri ditu. Antzeko berria eman du Unama folk talde ziburutarrek ere. www.jamendo.com webgunean eskegi dute euren lehen diskoa, edozeinek doan deskarga dezan.

Street Zinema jaialdiaren bosgarren edizioa abian da



Street Zinema ikus-entzunezko jaialdia joan den astean jarri zen abian Donostian, Ernest Lluch kultur etxean ikusgai jarritako skate-ari buruzko erakusketarekin. Irailaren 29ra arte luzatuko da eta aurten, lehenengo aldiz, erakunde publikoen laguntzarik gabe ariko direla azaldu dute antolatzaileek. "Kontsumitzaile pasibo gisa dominatu nahi gaituzten multinazional eta enpresa korporatibisten garroei mozorroa kentzeko ari gara lanean hamarkada erdiz" dio jaialdiaren webguneak (www.street-zinema.net). Jarrera subertsibo horrekin kontraesanean dagoela dirudien arren, antolatzaileek uste dute kapitalismo posfordistak lagunduko duela gazteen kale jardura emantzipatzaileak bultzatzen, hala nola, skate, street-art edo toy-culture-a. Ideia horrekin bat egin du jaialdia iragartzeko kartelak ere (argazkian): "Jainkoak bedeinka beza kontsumismoa" dio.

Urdazubin arte garaikideko lanak ikusgai jarri dituzte

URDABUBIKO KALOSTRAPEAN arte garaikideko 14 artisten lanak jarri dituzte ikusgai. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, Euskal Herri osoko artisten 400 margolan eta eskultura ikus daitezke. Erakusketa irailaren 21a arte izango da zabalik eta handik aurrera Jose Luis Zumetaren lanak ikusi ahal izango dira udazken guztian zehar.

Musikari ezagunak ariko dira Getxoko 24. folk jaialdian

GETXOKO 24. Nazioarteko Folk Jaialdia irailaren 4an hasi eta 7an amaituko da eta Erromo eta Areta izango ditu gune nagusiak. Guztira 13 kontzertu izango dira, eta talde ezagunekin batera hasiberriek ere zuzenekoak eskainiko dituzte. The Chieftains, Ismael Lo eta Elideus Ochoa izango dira, besteak beste, zuzenekoak eskainiko dituzten musikariak. Bestalde, aurtengo edizio honetan garrantzi berezia izango dute haurrentzako antolatutako jarduerak, bidezko azokak, banden desfileak eta munduko gastronomiak.



Karlos Blanco de Irujo Plaza, 1
20083 Donostia / San Sebastián (Gipuzkoa)
Tel: 943 44 00 99
e-posta: aquarium@aquariuma.com • web orria: www.aquariuma.com

Xabier Paya bertsolariak
Berrian: «Bertsolaritza zubitik behera botatzea bezalakoa da, inork ez daki kontua nola amaituko den, baina bertsolariak, behean koltxoneta bat jarrita dauka; bukaera. Behin pozoia bukaeran ipinita, funtzionatzen du bertsoak. Beraz, muga hori bere onerako baliatu dezake. Gainera, modu horretan, edozein egoerari aurre egiteko metodoa sortzen da».

Mariasun Landak Sareinak
blogean: «Literaturan hastear nagoela iruditzen zait. Oraindik frogatzekotan nago zer den jaiki, gosaldur, bueltatxo bat eman eta egunero-egunero idaztearena. Orain arte beti konpaginatu behar izan dut irakaskuntzarekin, nahiz eta inork ez nauen behartu, ezta ekonomikoki ere. Egunero-egunero idaztea baino lehenagoko mila gauza ditut bizi».